



Unitate didaktikoa

"Estereotipoak apurtuz"



HEZKIDETZA, GENEROA ETA TRANSGENEROA

Nancy Fraserren hitzak errepikatuz, generoa sozialki, historikoki eta kulturalki eraikitako kategoria bat da. Emakumezko eta gizonezko hitzak ez bezala, feminitatea eta maskulinitatea ez dira kontzeptu enpirikoak. Generoa oso ezarrita dagoen sexuaren ezberdintasunaren instituzionalizazio soziala da. Giza ezaugarriak markatzen ditu, baina aldi berean eta batez are, kontzeptu sistema, antolatze printzipioa eta jokaera kode bat izan ere bada; hori dela eta norbanakoak euren bizimodua egituratuko du espero den bezala, femeninoak edo maskulinoak edota jokaera maskulino edo femeninoa izanda ere. *Zentzu horretan, generoa ez da kategori deskriptibo, emakumezko edo gizonezkoen ikuspegi soziala markatzen duen arautegia baizik.*

Feminitatea eta maskulinitatea dira jendarteak bere funtzionamendu eta egitura bizirauteko egiten duen eraikuntza.

Ukaezina da emakume eta gizonen arteko ezberdintasun biologikoak badirela, noski, baina gizartearen antolaketan garrantzitsuena ez da ezberdintasun hori baizik eta ezberdintasun horri zer esanahia edo balioa ematen zaion edo nola interpretatu eta bizitzen den.

Zenbait kasutan hausnarketa hau motz gelditzen dela eta errealitate eta pertsona guztiak ez dituela biltzen jakin badakigu. Haratago joanda, *transgeneroaren* definizioari buruz hitz egin dezakegu.

Transgeneroa, hitz orokor bat da, Nietoren arabera, sozialki ezarritako bipolaritate sistemarekin eta genero oposizioarekin deserosoa aurkitzen den pertsona da. Honek genero eta genitalen batasunari errefusatu eta uko egiten dio eta bere burua maskulinitate eta feminitatearen arteko markoan ikustea nahiago izaten du. Pertsona baten sexualitatearen adierazpen era da zeinek genero biologikoa zein gizarteak emandako rolaekin bat egiten ez duen. Norberaren generoaren identitatea da (autoidentifikazioa gizon, emakume bezala, biak edo inor ez bezala)

Transgeneroak ez dauka zerikusirik orientazio sexual jakin batekin, pertsona hauek heterosexualek, homosexualak, bisexualak, pansexualak, polisexualak, asexualak,... Benetan justuago eta berdintasunezkoago den jendarte bat nahi badugu non emakumezko/gizonezko, sexu/genero binomioak gainditzen dituen, estereotipoa hauek guztiek apurtu egin beharko genituzke.

Unitate Didaktiko honen helburua egun dauden estereotipoak berrikustea eta aztertzea da, sortzen dituzten ezberdintasunez jabetzeko eta behar diren aldaketak ezartzeko.

ABIAPUNTUA

Gaiari hasiera emateko baliabidetan aholkatutako bideoren bat ikustea proposatzen dugu. Ekainaren 28ren inguruan ere landu daiteke, Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela aprobetxatuz.

HELBURU OROKORRA

Sexu eta generoarekin lotutako estereotipoei buruz hausnartzea, egoera desberdinak aztertuz, sortzen dituzten desberdintasunaz ohartzeko eta alda ditzagun lan egiteko.

HELBURU DIDAKTIKOAK

Sexu eta generori buruzko estereotipoak orraztea, egoera desberdinak aztertuz aldatzen saiatzeko.

Estereotipo horien aurrean jendartean sortzen diren jarrerak aztertzea, agerian utziz, diskriminazioa ekiditeko.

Pertsonen arteko harremanen aniztasunaz hausnartzea, orientazio sexual desberdinak ezagutuz, diskriminazioa ekiditeko.

Homolesbikofobikoak diren egoerak identifikatzea, agerian utziz, horien kontra borrokatzeko.

Gaur egungo jendarteak eskaintzen zaizkigun ereduez hausnartzea, estereotipoak baztertuz, berdintasunezko harremanak sortzeko.

Eraso eta indarkeria egoeretatik libre bizitzeko jarrera eta trebetasunak garatzea aipaturiko egoera horiek ez jasateko.

OINARRIZKO GAITASUNAK

Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.

Informazioa tratatzeko gaitasuna.

EDUKIAK.

Estereotipoak

Desberdinak diren pertsonen aurreko sentsibilizazioa.

Desberdinekiko begirunea.

Desberdintasunen errespetua, norbera eta bestearen balorazioa.

Informazioa bilatzeko, sailkatzeko, aztertzeko eta adierazteko trebeziaren garapena.

Elkar lanerako eta lankidetzarako jarrera.

Irizpide kritikoz jokatzeko ahalmena.

Berdintasunezko harremanak ezartzea.

JARDUERAK

HAUR, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA: Soineko berria Zertaz hitz egiten ari gara?


Materialak: " El vestido nuevo" bideoa, arbela, folioak, boligrafoa, hiztegia, internet sarrera duen ordenagailua, eranskin I.

Denbora: saio bat edo bi

Taldekatzea: talde handia, binaka, banaka.

Garapena:

1. Irakasleak YouTubeko " El vestido nuevo" bideoa proiektatuko du.
2. Ondoren filma landuko da, horretarako ondorengo ideiak eranstean ditugu.
 - Marioren jarreraren aurrean sortzen diren erreakzio desberdinak, irakaslearena, klaseko kideena, Santosena, Elenarena, zuzendariarena, aitarena.
 - Esaldi esanguratsuak: Irakasleak (a Mario parece no pasarle nada), Santosek (maricón), Elenak (los niños no se visten de niña), aitak (qué haces con el vestido de tu hermana)
 - Aitak jakarekin tapatzea eta eramatea, besarkada
 - ...
3. Ondorioak aterako dira.
 - Zergatik uste al duzue Mario neskaz janzten dela?
 - Nola sentituko da besteen erreakzioen aurrean?
 - Mario izango bazina, nola erreakzionatuko zenuke jarrera horien aurrean?
 - Eta klase kide bat izango bazina eta Mario sartuko balitz?
4. Gure ustez argi dago Mario ez dela ondo sentitu, horregatik, ikasleei gidoia berridazteko eskatuko diegu baina oraingoan inor minduta sentitu gabe.
5. Ondoren gelan antzetzuko da.
6. Saioa bukatzeko irakasleak banatu edo irakurriko du Eranskin Ieko berria eta hausnarketa egingo da.



HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

1. BANAKAKO DESBERDINTASUNAK

Materialak: ispilua, metroa, norbanako ezaugarrien fitxa (II eranskina), arkatzak.

Denbora: saio bat

Taldekatzea: bikoteka eta talde handia

Garapena:

1. Irakasleak aurkezpen txiki bat egingo du: denok berdina garelako aipatuko du, baina aldi berean desberdina ere bai. Ikasleak binaka jarriko dira eta II. eranskinean agertzen den fitxa betetzeko eskatuko die. Bertan lankidearen ezaugarri fisiko zein psikologikoak eta norberak dituen zaletasunak jaso beharko ditu.

2. Ondoren, talde handian konparatuko dira. Desberdintasunak jasoko dira emozioetan, ezaugarri psikologikoetan zein zaletasun desberdinetan indarra jarriz.

3. Irakasleak ondoko galderak planteatuko ditu:

- Desberdintasun hauek elkarrekin bizi ahal izateko oztopo al dira?
- Zer gauzek oztopatzen dituzte elkarbizitza?
- Norbanako zaletasunekin erlazionatuta al daude?

2. DESBERDINTASUNEKIKO ERRESPETUA

Materialak: III eranskina (Mikel eta bere txirringa berria).

Denbora: saio bat

Taldekatzea: bikoteka eta talde handia

Garapena:

1.- Irakasleak "Mikel eta bere txirringa berria" ipuina irakurriko du

2.- Ondoren, ipuinari buruzko debatea bultzatu eta hausnarketak jasoko ditu. Debatea bultzatzeko ondoko galderak planteatuko ditu:

- Zergatik egiten du garrasi dendan sartzen den mutikoak Mikel txirringa arrosarekin ikustean?
- Baten bat ados al dago garrasi egin duen mutilarekin?, berdina pentsatzen al du?
- Nola sentituko da Mikel?
- Zer jarrera desberdin agertzen dituzte pertsonaiek?
- Zergatik aldatu du Mikelek iritzia? Uste al duzu hartu duen erabakiarekin gustura sentitzen dela?
- Zer aldatuko zenuke ipuin honetan? Zer egingo zenuke Mikel ondo sentiarazteko?
- Ipuin honetatik ondorioz atera al dezakegu edo zerbait ikasi?
- Ipuinak beste modu batean buka dezakeela uste al duzu?

3.- Behin ipuina aztertuta, irakasleak aurreko saioko bideoarekin konparatzeko eskatuko du. Hausnarketarako ondoko galderak proposatuko ditu:

- Bi historia horietan berdintasunik al dago?
- Protagonistek zer daukate komunean?
- Zer jarrera errepikatzen dira bi istorioetan?
- Komuneko ikasgairik atera al dezakegu?

Ondorio argirik aterako ez balitz, irakasleak berea emango luke.

EZIN DA INOR BAZTERTU BERE GUSTU EDO ZALETASUNENGATIK, NORBERA DEN BEZALA ONARTU BEHAR DUGU.

BIGARREN HEZKUNTZA

TERMINOLOGIA: Zertaz hitz egiten ari gara?

Materialak: arbela, folioak, boligrafoa, hiztegia, Interneteko sarrera duen ordenagailua.

Denbora: saio bat edo bi

Taldekatzea: talde handia, talde txikia, bikoteka, banaka

Garapena:

1. Gaia aurkezteko irakasleak arbelean ondorengo hitzak idatziko ditu: *generoa, sexua, sexualitatea, transgeneroa, heterosexuala, trabestia, lesbiana, estereotipoa, homosexuala, mitoa, ohitura, pansexuala, diskriminazioa, aztura, bisexuala, legea, berdintasuna, desberdintasuna, polisexuala, moda, asexuala, cissexuala.*

2. Ikasleei hitz hauen esanahia botatzeko eskatuko zaie eta definizioak jasoko dira.

3. Ondoren, hiztegian edo Interneten definizioak bilatzeko eskatuko du irakasleak.


4. Definizio guztiak jasoko dira eta ikasleek emandakoekin aldentuko dira.

5. Ondorioak aterako dira

- Hitz hauek guztiak ezagutzen al zenituzten?
- Zein egin zaizue arraroen eta zergatik?
- Hitz hauen guztien artean loturarik ba al dago?, Zein lotura?

6. Bukatzeko ikasleei hitz hauek erlazionatuz esaldiak idazteko eskatuko zaie. Esaldiak irakurriko dira. *Esaldiak ezin izango dira mingarriak izan eta ahal bada positiboak izan beharko dira.*

7. Egokia bada, hurrengo saio batean esaldiak modu sakonago batean landu daitezke.



2. HISTORIAKO PERTSONAIAK

Materialak: arbela, folioak, boligrafoa, Interneteko sarrera duen ordenagailua, kartulina

Denbora: lau saio

Taldekatzea: talde handia, talde txikia, bikoteka, banaka

Lehenengo saioa: Pertsonaiak

Garapena:

1. Saioa hasteko irakasleak ondorengo zerrenda toki ikusgai baten jarri edo irakurriko du. Bertan garrantzitsuak izen diren historiako pertsonaiak agertzen dira. *Alejandro Magno de Macedonia, Virginia Woolf, Oscar Wilde, Federico García Lorca, Freddie Mercuri, Isadora Duncan, Aquiles, Cristina de Suecia, Pedro Almodóvar, Frida Kalho, Rock Hudson, Greta Garbo, Elton John, Leonardo da Vinci, George Michael, Catalina de Erauso, Miguel Ángel Buanarotti, Safo, Martina Navratilova, Nerón, Amelie Mauresmo, Rob Halford.*

2. Galdetuko du ea pertsonai horiei buruz zer ezagutzen duten, bizitza, lana edota historiarako ekarpenak eta oharrak hartuko dira.

3. Ondoren pertsona hauek guztiak gay, lesbiana edo bisexualak izan direla edo horrela usten dela behintzat komentatuko du.

4. Ondorioak aterako dira

- Pertsona hauen orientazio/aukera sexualak harritu al zaituzte?
- Beren historiarako ekarpenei dagokionez, informazio hau garrantzitsua al da?
- Zer eragina izango zuen beren bizitza pertsonalean zein lanean?
-

Bigarren Saioa: Istoriorako ekarpenak

Garapena:

1. Irakasleak taldea txikitan banatuko du.

2. Aurreko saioko pertsonaien zerrenda berreskuratuko du eta izenak taldeen artean banatuko ditu.

3. Talde bakoitzak pertsonai horiei buruzko informazioa jaso beharko du: nongoa diren, beren data garrantzitsu eta historiarako ekarpenak. Beraien benetako aipu bat edo azpimarratzekoa dena aipatuko da.

4. Bukatzeko klase aurrean aurkeztuko da.

Hirugarren Saioa: Horma-irudiak

Garapena:

1. Talde desberdinei landu duten pertsonai artean bat aukeratzeko eskatuko zaie. Bere bizitza eta lanari buruzko horma-irudi bat egin beharko dute. Aukeraketaren arrazoiak eman beharko dira.

2. Horma-irudiak kronologikoki ordenatuko dira eta gelan edo eskolan jarriko dira.

Lanak ikastetxeko beste taldeekin konpartitzea interesgarria izango litzateke. Erakusketa bat ere antola daiteke.

EBALUAZIOA

Hasierako jarduerak hasierako ebaluaziorako erabiliko ditugu. Modu horretan gure ikasleen ezagutzaz onartuko gara eta indarra non jarri jakingo dugu.

Unitatea lantzen den bitartean etengabeko ebaluazioa egingo da, besteak beste, behean aipatzen diren teknika eta tresnak erabiliz.

Unitatea bukatzean berriz ikasleen lana baloratuko da markatutako irizpideak jarraituz. Ikasleek ere beraien autoebaluazioa eta unitatearen ebaluazioa egin dezakete.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jarduera beraren ebaluazioa egingo dugu, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu dugun gela, denbora, ikasleak motibatuta egon diren... hau guztia, behar izanez gero, hurrengo jarduerarako praktika egokitu eta unitatearen bukaeran ezarritako helburuak bete ahal izateko.

Ebaluazio irizpideak:

- Ea gaiaren garrantziaz jabetzen den.
- Ea erabiltzen dituen teknologiak ezagutu eta modu egokian erabiltzen dituen.
- Ea irudi audiobisualak behatu eta aztertzen dituen transmititzen duen mezuaz konturaturaz.
- Ea jendartean dagoen diskriminazioaz jabetzen den.
- Ea talde lanetan errespetuz eta modu enpatikoaz lana egiten duen.

Ebaluaziorako teknika: Behaketa.

Ebaluaziorako tresnak:

Irakaslearen egunerokoa

Ikasle bakoitzaren historiala. Bertan unitatearen garapenean zehar bakoitzaren lanaren balorazioa zein ekarpenak jasoko dira.

Egindako lanak.

Ikasleen ebaluazioa unitatearekiko: Elkarrizketarako gidoia:

- Zer da gehien eta gutxien gustatu zaiena eta zergatik.
- Zer da ikasi dutena.
- Zerk harritu ditu gehien.
- Zer aldatuko luketen.



Aita alemandar batek gona jatzi du 5 urteko semearen elkartasunean.

Nils Pickert-ek, aita alemandarra, gona janzteia erabaki du 5 urteko semearekin bizitza errazago egin nahian; izan ere, haurrak emakume arropa jantzi nahiago du. “ Ez zara ausartzen jonak jazten zure gurasoak ere ez baitira ausartzen” horixe erantzuten omen du 5 urteko haurrak trufatu nahian ibiltzen direnei.

Istoria ezin arruntagoa da: aita eta semea Berlingo auzo kosmopolita batean bizi ziren, eta bertan semeak neska arropa janzteia ez zen inola ere deigarria, ez bazen nolabaiteko eztabaida haurtzaindegiko beste gurasoekin. Alemania hegoaldeko herri txiki batera joan ziren bizitzera, eta haurra deseroso sentitzen hasi zen herriko haurren erreakzioa ikusita, eta aitari kontatu zion. Aitak, buru zabaleko gizona, eta genero estereotipoak gustuko ez dituenak, erabaki azkar eta sendoa hartu zuen: gonak janzteia. Berlinen behin edo behin egiten zuen, baina orain ohitura bihurtu du bere semearekin konfidantza emateko.

Nils Pickert semearekin modu maskulinoan zuzentzen zaio, eta haurra identitate femeninoa duela esateko ez dago ageriko arrazoirik. Hori dela eta, maskulinoa mantendu dute haurrarekin hitz egiten dutenean edo haurraz hitz egiten dutenean.

II. ERANSKINA

ARGAZKIA	IZENA:	
	ABIZENAK:	
	HELBIDEA:	
	TELEFONOA:	
EZAUGARRI FISIKOAK		
SEXUA	ADINA	ALTUERA
TAMAINA	BIZKARREKO ZABALERA	GERRIAREN ZABALERA:
	ALDAKEN ZABALERA	BURUAREN NEURRIA:
	ESKUA:	HANKA
ILEA	KOLOREA:	TAMAINA:
	LISOA-KIZKURRA:	LEUNA-TENTEA:
BEGIAK	KOLOREA:	TAMAINA
AZALAREN KOLOREA		
NORTASUNEN DATUAK		
NOLAKOA ZARA?		
ALAIA	MAITAGARRIA	LOTSATIA
BORTITZA	LASAIA	ZUHURRA
AXOLAGABEA	SERIOA	URDURIA
AUSARTA	SENTIBERA	ZEHATZA
Bestelako adjektiborik zeure burua definitzeko?:		
NOLAKO LAGUNAK GUSTATZEN ZAIZKIZU?		
ALAIA	MAITAGARRIA	LOTSATIA
BORTITZA	LASAIA	ZUHURRA
AXOLAGABEA	SERIOA	URDURIA
AUSARTA	SENTIBERA	ZEHATZA
Bestelako adjektiborik gustuko lagunak definitzeko?:		
GUSTUAK		
KOLORERIK GUSTUKOENA	KOLORE ARGIAK / KOLORE ILUNAK	
JOKORIK GUSTUKOENA	BAKARKAKO JOKOAK / TALDEKO JOKOAK	
	JOKU LASAIAK / AKZIOZKO JOKOAK	
BESTELAKO JOKOAK		

III ERANSKINA

MIKEL ETA BERE BIZIKLETA BERRIA

Mikel bost urteko umea da, bera baino helduagoak diren bi arreba ditu: Miren eta Nerea. Bere arrebek jartzen dituzten zintak eta apaingarriak asko gustatzen zaizkio eta askotan kentzen dizkie. Gero bere ilehori eta kizkurra apaintzeko erabiltzen ditu. Ilea luzea eramatea gustatzen zaio ederragoa sentitzen baita. Gabonetan eta urtebetetzeetan familiakoek eta lagunek opariak ekartzen dituztenean beti bere arribenak gehiago gustatzen zaizkio.

Gaur pozik dago aitak bizikleta berria erosiko diola esan dio eta. Udaberri honetan bi gurpileko bizikletan ibiltzen ikasi du eta daukan bizikleta txikia geratu zaio.

Dendan sartzen denean Mikel harrিতuta geratzen da hainbeste bizikleta ikusterakoan. Bizikleta koloretsu guztiak arreba handiz begiratzen hasten da.

Saltzaileak bere ile luzea ikusterakoan zalantza aurpegia jartzen du eta galdetzen dio.

- Zein da zure izena?

- Mikel

Izena entzuterakoan, berehala bere tamainako bizikletak dauden tokira joaten da denak urdinak eta berde ilunekoak.

- Hauetako edozein ondo edukiko duzu.

Mikelek saltzailea tristuraz begiratzen du eta mila motako saski eta zintak dituzten bizikleta arrosak dauden beste apalera seinalatuz esaten dio:

- Ez, niri haiek gustatzen zaizkit.

Saltzaileak, temati, esaten dio:

- Begiratu ondo! kolore askotakoak daude, berdeak, urdinak, bi kolorekoak gorriak beltzarekin nahastuta ...

Baina Mikelen aitak esaten du:

- Ondo da, goazen hara eta ezaguzu gustatzen zaizun bizikleta zein den tamaina probatzeko.

Saltzaileak Mikelek esaten dion bizikleta jaisten dio eta Mikel, irribarre zabal batekin, bizikletan gainean jartzen da tamaina probatzeko. Mikel bizikleta probatzen ari den bitartean dendan beste mutil bat sartzen da bere amarekin.

Mutilak Mikel ikusterakoan, desatsegin keinua eginez, garrasika hasten da:

- Ama, ama begiratu mutil hori. Neskaren saskia duen bizikleta arrosa darama! Nesken bizikleta!

Mikel, bat-batean, oso serio jarri da. Honezkerok ez dago hain pozik ezta hain ziur ere nahi duenarekin. Bizikleta arrosatik jaisten da eta bere aitaren besotik tira eginez xuxurlez esaten dio:

- Aita, hobeto beste apalera bagoaz, bizikleta urdina probatu nahi dut.



BALIABIDEAK

Bideo interesgarriak

<http://youtu.be/JMakydi0p7o> jantzi berria

http://youtu.be/TUkAxMZ5_aM estereotipoak hausten

<http://youtu.be/IVIDInPft20> ama andaluziarra

Filmak **Desayuno en Plutón** Patrick Mc Cabe **Fresa y Chocolate** Tomás Gutierrez eta Juan Carlos Tabio **Quinceañera** Richard Gatzler **Fucking Amal** Lukas Moodyson
Get Real Simon Shore **C.R.A.Z.Y.** Jean Vallée eta François Boulay **Una jaula de grillos** Mike Nichols **A mi madre le gustan las mujeres** Inés Paris eta Daniela Fejerman
Tomboy Céline Sciamma **Transamérica** Duncan Tucker. **Ma vie en rose** Alain Berliner.

Material osagarria www.ararteko.net/rainbow // www.stee-eilas.org/emakumea

